

KLIMA-ALDAKETAREN KOMUNIKAZIOA: ZIENTZIA ETA GIZARTE ERRONKA

Klimagune 2015, klima-aldaketaren komunikazioa eztabaidagai COP21 delakoaren bezperatan

- Astelehenean, hilak 23, Bilbon izango da Klimagune, klima-aldaketaren inguruko eztabaida zientifikorako topaketaren seigarren edizioa
- Aurten zientziak Klima-Aldaketaren informazioan betetzen duen zeregina aztertuko da, eta eztabaidan jardungo dute komunitate zientifikoko eta hedabideetako profesionalak
- BC3, Basque Centre for Climate Change, eta EHU dira topaketaren antolatzaileak, eta ehun bat adituk parte hartuko dute

[Bilbo, 2015eko azaroak 20]

Azaroaren 30an abiatuko da Parisen XXI. Klima-Aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzia. Hamaika egunez, mundu osoko agenda informatiboan zientzialarien txostenak eta berotegi-gasen murrizketaz estatu parte hartzaileek ados ditzaketen erabakiak azalduko dira noiznahi. Zientifikoki zuzena da informazio hori? Nola sortzen dituzte albisteak hedabideek? Nola komunikatzen dituzte beren ebidentziak zientzialariek? Hauexek dira Klimagune-ren seigarren edizioan erantzuten saiatuko diren galderetako batzuk. Bilbon izango da, Bizkaia Aretoan, astelehen honetan (hilak 23), BC3-k (Basque Centre for Climate Change) eta EHUK- antolatuta.

Klimagune urtero egiten den Klima-aldaketari buruzko adituen topaketa da, eta seigarren edizioan gogoeta egingo du gai hauen inguruan komunikabideek helarazten duten informazioetan zientziak zer paper jokatzeko. “Klima-aldaketaren zientziaren komunikazioa: aukerak eta erronkak” izenburua darama topaketak, eta bertan zientzia eta komunikazioaren ordezkari gisa jardungo duten adituek eztabaidarako hitz eman dute. Alde batetik, komunikabideek klima-aldaketaren inguruko iritzi publikoa sortzen jokatzeko duten papera aztertuko da, eta bestetik, hedabideak erabiliz zientziak erabili ditzakeen bitarteko eta enfoke berriak aztertuko dira, horrek dakartzan erronka eta aukeretan zentratuta. Topaketaren helburuak, izan ere, ondokoak dira: klima-aldaketa nola komunikatu behar den ulertzea, eta era honetako harreman eraginkor batek gizarteak gaiak duen pertzepzioari nola eragin diezaiokkeen jorratzea.

Parte hartuko duten adituen artean sona handiko izenak daude. Alde batetik, bi hizlari nagusiak **Prof. Maxwell T. Boykoff**, AEBko Center for Science and Technology Policy Research erakundeko kidea, mundu mailako erreferentea eta “*Nork hitz egiten du klimaren izenean? Klima-aldaketaz hedabideek nola informatzen dute*” liburuaren egilea; eta **Prof. Bienvenido León**, UNAV-eko Zientziaren Komunikazioari buruzko ikerketa-taldeko ikertzaile nagusia, “Kazetaritza klima-aldaketaren aurrean: ikuspegi berriak eta erronkak” liburuaren idazlea.

Bestetik, bina mahai-inguru izango dira: Lehenean akademiako adituak izango dira: **Juan Ignacio Pérez Iglesias** (EHU-ko Kultura Zientifikoko Katedra), **Sergio H. Faria** (BC3) eta **Iñaki Antigüedad** (EHU); eta bigarrean, eta hedabideetako profesionalak: **Maria Josep Picó** (Zientzia Dibulgazioko Katedra, Valentzia), **Eva Caballero** (Radio Euskadi), **Iñaki Petxarroman** (Berria) eta **Jose G. Corral** (El Mundo).

Amaieran, parte hartzaileek lan-mahaietan jardungo dute akademia eta hedabideen arteko harreman-esparruak identifikatzeko.

Klimagune

BC3, Basque Centre for Climate Change eta EHU dira Klimagune Workshop delakoaren antolatzaileak. Eztabaida-gunea da klima-aldaketaren alderdi zientifiko-politikoaren inguruan, eta Euskal Zientzia eta Teknologiako eragileei eta gai hauekiko interesa dutenei zuzentzen zaie. Lehen edizioa duela bost urte antolatu zen, eta geroztik 400dik gora adituk parte hartu dute, askotariko gaien inguruan: egokitzapen-estrategiak, Ekonomia Berdea, jasangarritasunerako trantsizioak eta landa-inguruaren aukerak eta erronkak klima aldaketaren testuinguruan.

Klima-Aldaketaren komunikazioari buruzko erronkak

2009ko Eurobarometroaren arabera, Europako herritarrentzat planetak aurrez aurre dituen erronken artean klima-aldaketa bigarren posizioan dago, goseteen arazoaren atzean. Pertzepzio sakon horren atzean, ordea, ez dago horren argi zein iritzi dagoen klima-aldaketa bera eragiten duten kausen inguruan. Esate baterako, askotariko fenomenoaren azalpenak bilatzeko orduan maiz aipatzen da klimaren aldaketa (uholdeak, beroaldiak, etab.), gehienetan oinarri zientifikorik batere gabe.

Gainera, 2008. urteko krisiaz geroztik, gizartean gai honek duen garrantziaren inguruko pertzepzioak atzera egin du, nahiz eta epe berean ebidentzia zientifikoak asko zabaldu diren.